

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Larunbatean euskaraz ekimenaren eskutik, irteera larunbat honetan

2017ko martxoaren 31, 518 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

TXURI URDINERA IRTEERA ANDOAINDIK

Hurrengo asteartean iritsiko da Korrika Andoain eta Urnietara

Apirilaren 4an, asteartearekin, goizeko 10:00etan iritsiko da Andoainera eta herrigunea zeharkatuta, Urnieta aldera abiatuko da.

Antolatzaileen aurreikuspen arabera, Korrikak ordubeteko epean Andoain eta Urnieta herriak zeharkatuko ditu goizeko 11:00k pasatxo direnean Hernaniko udalerrian sartzeko. Denbora tarte horretan hainbat elkartek eta herri eragilek bat egingo dute lasterketaren lekukoa hartuz eta leku-



Korrika datorren astearte goizean Andoaindik eta Urnietatik igaroko da.

koaren atzetik korrika eginez. Ikastetxe eguna izanik, bi herrietako ikastetxeetako ikasle-

ek euskararen lasterketarekin bat egingo dutela aurreikusten da.

Korrika eskualdera iritsi aurretik ekitaldi ezberdinak iragarri dituzte. Ostegun honetan bertan Andoainen peto-poteoa izango da, Goikoplazatik Zumea plazara. Geldialdi ezberdinetan, eta Katramila antzerki taldeak girotuta, lekukoa hartuko duten herri eragileei peto bana emango zaie. Kalejiraren amaierako ekitaldi nagusia Zumea plazan izango da, 20:15etan hasita.

Era berean, martxoaren 30ean, Urnieta-Hernani herrietako Korrika batzordeak "Erradikalak gara" bertso ikuskizuna antolatu dute, 20:00etan Hernaniko Biterin.

[ESKUALDEA, 6-7. ORRIALDEAK]

Urkiren dantza saioa igande honetan

Urki dantza taldeak emanaldia eskainiko du igande honetan Basteron, eguerdiko 12:00etan hasita. Sarre-ra doakoa da, eta egunean bertan eskuratu ahal izango dira. Emanaldian Urki dantza taldeko partaide guztiek dantza egingo dute. Dantza ezberdinak eskainiko dituzte, Euskal Herri osokoak eta baita estreinaldiren bat ere. Eskainiko dituzten dantzen artean daude: besteak beste: Belauntxingo, Makil txiki, Sardinerak, Irradaka, Bizar dantza, Lesaka, Leitzako ingurutxoak, Dantzaluzea...


Afrika aldeko BTT proban



Gorka Irazu eta Joxemi Mujika andoaindarrek Afrikako Cape Epic proba entzute-tsuari parte hartu dute.

[KIROLAK, 7. ORRIALDEA]

Alonso eta Iturria txirrindulariak profesional mailako tropelean




Mikel Alonso.

Euskadi Fundazioko eta Murias taldeko urnietarrak Indurain sarian eta Errioxako itzulian lehiatuko dira asteburu honetan.

Kirol mailan asteburu honetan gertatuko dena Urnietaren tainako herriarentzat oso albiste deigarria eta pozgarria da. Profesional mailako txirrindulariak aspaldiko gutxienak dira

kopuruan eta taldeak ere estatu mailan gutxi dira. Asteburu honetan, ordea, profesional mailako Indurain sarian eta Errioxako itzulian Mikel Alonso eta Mikel Iturria tropel berean lehiatuko dira. Alonsok 23 urtez azpiko Espainiako selezioarekin parte hartuko du proba horietan, gonbidatu gisa. Iturriak Murias taldearekin parte hartuko du, Classic Loiren bikain aritu eta gero.

[KIROLA, 11. ORRIALDEA]



Mikel Iturria.

ASTE SANTUKO DANTZA TAILERRAK SAROBEN (URNIETA)

Apirilak 18, 19, 20.
10:00-12:00.
Debalde.
14 urtetik aurrera.

OINAK AIREAN
Ibai Egia

Dantza eta akrobaziak airean:
igo, jaitsi, kulunkatu...

DANTZA FAMILIAN
Arantxa Iglesias

Musika, sormena, dantza
eta jolasa txikiak eta handiak

Apirilak 10, 11, 12.
17:00-18:00.
Debalde.
3 urtetik gora eta
familiakoak.

Izena eman
apirilaren 7ra arte
Sarobera bertaratu.
PLAZA MUGATUAK
M.lurramendi, 2.
943 00 80 42
sarobe@urnieta.eus
www.sarobe.info
www.urnieta.eus



ELKARRIZKETA

Imanol Ansa erremontista: Txikia bai, eskasa ez

Bizitzaren gurrpil zoroan sartu zen behin Imanol Ansa, eta atera ezinik segitzen du egun. Besteak beste, atera nahi ez duelako. Erremontista da, kirolari profesionala, astean bi-hiru partida jokatzen ditue-

na. Ikasle ere bai, irakasle izateko jardunean (delineazioa ere ikasi zuen). Baita txotxero ere, Eugenio osabaren Setien sagardotegian. Parrandarako tarte gutxi du, "baina gustuko lekuan aldaparik ez".

Hiztegiak hitz nahikorik ez du Imanol Ansaren jardunean. Jendaurreko lanak hitzontzia izatea ekarri omen du. Oso gaztea da, 21 urte, baina zer kontatu asko du, hainbat alorretan. Ez dira asko, adin horretan, ikasle, langile eta kirolari profesionalak direnak. Bibolin-jotzaile ere izana da, "baina utzita daukat egun, denbora faltagatik". Ansa anaietan gazteena **Setien sagardotegian** egiten duen lanagatik da ezaguna Urnietan. Txotxero, zerbitzari, sukaldari..., eskatzen diotena egiten du, eta noski tratu handia du jendearekin.

Galarreta pilotalekuan ere gero eta ezagunagoa da. Erremontista profesionala ziur aski pilota jarduera zailena da. Galarretak distira izan zuen behinola. Garai ilunxeagoak bizi ditu egun, baina han kantxan aritzen direnek beste kirolariek adina sakrifizio egiten dituzte. Ansa lan fisiko zorrotza egiten du urte osoan, **Unai Legarreta** herrikide eta prestatzailearen aginduak jarraituz. Frontoian etxean baino gusturago sentitu izan da betidanik Imanol: "Txikitatik frontoian sartuta egon naiz, aitzak oso gustuko zuelako. Txiki samarra nintzen eta indar askorik ez nuen, eskuz jokatzen nuenean sekulako jipoiak jaso eta desmoralizatu egin nintzen, utzi arte. Futbolearen murgildu nintzen gero, eta gustura, talde lanean, baina asebeste gabe".

Aitzak erremontean probatzeko esan zion, "bera ere txikitik ibilia zelako. **Ander Goikoetxea** urnietarra ere bazebilela enteratu nintzen, probatzera joango ote ginen galdetu eta hara joan nintzen. Segituan jabetu nintzen kirol hura gustukoa nuela. Hasiera gogorra egin zen, lehen pilotakadetan ez nintzelako frontisera iritsi ere egiten. Gero teknika ikasi nuen, eta jabetu nintzen indartsua izan gabe ere bidea egin nezakeela".

Erremontean, esaldi hau iltzatuta geratu zait: "Gozamena da pilota ze abiadurarekin ateratzen den sentitzea"... Eta lehen egun haiek nolakoak izan ziren? "Ufa! 15 urterekin izan zen. Goikoetxearekin probatu nuen egunean aitarekin joan nintzen Galarretara, eta txikiegia nintzela esan zidan **Igor Sarasua** entrenatzaileak. Xesto bat eman, eta urtebetera bueltatzeko esan. Txikia nintzela onartu nion, baina 15 urte nituela jada. Astean pare bat entrenamendu egiten hasi nin-



Imanol Ansa Eugenio osabarekin, Setien sagardotegian.

tzen, aitarekin, bera lanetik ateratzen zenean. **Laxaro Oiarbideri** deitu, frontoia ireki eta ordubete sesioan. Asteartero edo asteazkeneko eta igandetan base-rrian bazkaldu eta gero. Urtebetera Galarretara itzuli nintzen. Entrenatzaileak esan zidan, debutatu ondoren solasean aritu ginen egun batean, hara iritsi ginen berrogeiren bat mutiletatik norbaitek debutatzekotan nik egingo nuela, konfiantza zuelako niregan". Denera lau mutil pasa ziren, lau urteko epe horretan: "pazientziarekin hartu genuenak". Batzuk bi aste irauten zuten, besteek hilabete pare bat... Imanolek afizioagatik eta aitagatik iraun zuen. Orain fede handiago duela onartzen du: "Gaztetan ez hainbeste, baina aitzak baietz eta baietz esaten zidan".

Agustin Ansa etengabe agertzen da Imanolen berbetan. Bere aita zen, Arano semea. Buruko minbizi batek eraman zuen, bi hilabete eskasean. "Hilzorian zegoenean, artean debutatu gabe nengoan, baina bi urte eginak entrenatzen, eta agindu nion, 'zuregatik debutatuko dut'. Egun hartan poza kristorena izan zen. Pena handia, halaber, ikusi ez ninduelako. Ikaragarri gozatuko zuen". Abenduan 5 urte bete ziren Agustin hil zela. Oroitzapenak borborka ditu Imanolek: "Nik 15 urte nituen,

Xabier anaiak 16. Erlazio handia nukan, bere afizio guztiak nire egin bainituen: ehiza, erremontea... Txikitik erremontean ibilitakoa zen, baina ez zen profesioaletara pasa soldaduska eta lan kontuengatik. Berak lortu ez zuena nire bitartez lortu nahi izan zuen, eta halaxe izan zen".

Lurdes ama gorai patzen du, trantze hartan: "Harri bat izan da, oso gogorra. Ahalegin ikaragarria egin behar izan zuen bat-batean, jota zeuden bi gazterekin etxean... Gu baino gehiago sufritu du, ziur. Zaindu gaitu gu, baita amona ere eta familia aurrera atera du. Miresen dut. Amak zenbat laguntzen didan lana eta erremontea uztartzen, ordutegiaren arabera askotan partidatik berandu iristen naizelako. Edo lehenago joan behar eta berak ordezkatu upeletan, otorduetan... Orain txiki da pixka bat lasaitzen, independente izaten hasi garenean".

Aita hil zenean ehiza uzteko egon omen zen Imanol bera, erremontean trebatzeko ilusioa galdu..., baina osaba **Bartolo** agertu zen: "Nirekin bolkatu zen erremontean, eta aitzak utzitako hutsunea hartu. Zorretan nago osabarekin".

Galarretan aritzen den ia guztietan, amona **Maritxu**, lehengusinak eta izeba-osabak harmailetan izaten ditu babesa

ematen. Kantxara ateratzen denean, aurkezpenean, haientzat izan ohi da bere agurra.

IKUSLE EXIGENTEAK GALARRETAN

Galarreta beti izan da diru apustuak egiten zen tokia eta dirua zegoenean topera zegoen. Orain, sos faltan, jende gutxiago bertaratzen da. Telebistatik ere ez dago, eta erakusle hori gabe publizitate gutxiago, jende gutxiago, erremontistentzat soldata apalagoak... Erremontean bizi al daiteke? "Nik garbi daukat ez dela ofizioa niretzat. Koadroko pilotari guztiek lana egiten dute. Esperantza badut, egoera hobetuko dela. Izan ere, hobetu da, iaiaz. Afizio bat da, gustukoa dudana, eta horregatik segitzen dut, baina etorkizunera begira ez da bermerik eman diezazukeen ogibidea".

Erremontea jarduera zaila da, bakarren bati erremontista edozein dela entzun izan badio ere: "Etor dadila probatzera, ea zer dioen probatu ondoren. 15 urterekin hasi nintzen probatzen, serio entrenatzen, eta 19 urterekin egin nuen debuta. Eskumuturrekin egin beharreko joku berezi horretan trebatzea ez da erraza. Pilota oso azkar ibiltzen da, segundorik ere mundua da, eta jokaldiari aurrea hartzen ikasi beharra duzu, bestela jai. Erremontea ulertu egin behar da, pilotak bote handia egiten baitu. Paretan gurutzatu eta zazpi eta erdi koadroan sartzea da gakoa, hori irakasten digute. Hori kristoren kolpea ematea baino garrantzitsuagoa da. Kokapena ere erabakigarria da, azken unea arte itxaroten baduzu, akabo".

Galarretan egon den edonork daki pilota ziztu bizian ibiltzen dela, eta erremontistek kontuz ibili beharra dutela. Noizbait beldurra sentitu izan duen galdetuta... "Bai, arriskutsu samarra da. Izterrean kolpe asko hartu ditut, mingarriak. Handiena Pasaian, bularraldean eman zidan pilotak, eta ahotik odola botatzen hasi nintzen. Erietxean amaitu nuen".

UNIBERTSITATETIK UPELERA

Ikasle ona izan zen txikitik Imanol. Orain, balekoa. "Dena aprobaten dut, hori bai. Etxean anaia zaharra ikasle fina izan da, eta nik ere berdina egin behar, noski". Bi urteko zikloa egin zuen, delineazioa, eta orain, Magisteritza ikasten

ELKARRIZKETA

"Etxean denbora gutxi, otorduak azkar-azkar... Jaiki, unibertsitatera, bazkaldu, ziztu batean entrenatzera, handik sagardotegira, afaldu eta lanean hasi..., eta hurrengo egunean berriro!"

ari da. Ikasgelatik etxera, bazkaldu, entrenamendua, eta handik sagardotegira, upel artera, ziztu bizian. Urtarriletik Aste Santura bitartean txotxero aritzen da aste egunetan, Eugenio osaba gidari dela. "Kristoren harremana dut berarekin. Eugenio bigarren aita bat bezala izan da niretzat. Hari aitari kontatuko ez nizkion kontuak kontatuko nizkioke: 'kaxondoagoa' da, eta sagardoaren munduan oso sartuta dago".

Txotxean oso gustura egoten da Imanol. Astegun edo asteburua izan, oso lan ezberdinak omen dira. "Astean zehar denetarik egiten dut: txotxean egon, zerbitzatu, tortillak egin... Saltsero samarra naiz, eta jendearekin edukitzen den tratu hori gustuko dut. Askok esan izan didate, txotxero hiztuna naizela, eta ez nagoenean faltan botatzen nautela". Eta tabernariak duten ligatzeko erraztasun hori sumatu al du upeltegian? "Bueno, eskaintzaren bat edo izan dut, neska koardrila gazteren bat etorri, eta Hernanira beraiekin joateko esanez. Badakizu txotxero hitzak hitz joko bihurri samarra daukala".

Iskanbila gutxi izan ditu: "Neurtzen ez duen jendearekin. Guk bertako jendearekin egiten dugu lana. Ez dugu autobusetan kanpotik etortzen den jendea hartzen, hori da gure politika. Gure helburua ez da nola edo hala betetzea, are gutxiago kanpoko jendearekin. Guk konpromisoa Urnieta eta inguruko jendearekin daukagu, eta betetzearen truke, ezagunak, bezero onak kalean uztea bada, ez da egiten".

Imanol eta Xabier anaia sagardotegian egotea inportantea dela uste du: "Jende asko eramaten dugu, herrian asko mugitzen gara-eta". Upel guztiak irekitzen dituzte, eta bezeroari garbi utzi nagusia txotxeroa dela, berak erabakitzen duela ze upel ireki, zein ez, ezin dela upelik kolpatu. "Upel tokia sagardotegiarena da, eta bezeroak hori ulertu behar du, nagusia zu zarela ulertu. Bezeroari nahi duen guztia edaten uzten diogu, baina lurrera botatzen badu, kargu hartzen diogu. Sagardoa lurrera botatzen baduzu, sagardoa gutxiesten duzu, eta hori sagardoegile batentzat onartezina da, lan handia egin duzulako sagardo hori lortzeko".

Lehen hilabetea, hilabete eta erdia azkar joaten omen da, baina bigarren hilabetetik aurrera kontua luzatzen hasten da: "Etxean denbora gutxi, otorduak azkar-azkar... Jaiki, unibertsitatera, bazkaria, ziztu batean entrenatzera, handik sagardotegira, afaldu eta lanean hasi..., eta hurrengo egunean berriro!"

Egun, sagardotegiak jatetxe bilakatu dira ia-ia. Imanol Ansak ere onartzen du: "Jende gehiago mugitzen da janaria, lokala eta goxotasunagatik, sagardogatik baino". Halere, "Setieni sagardoa



Imanol, sagardotegiko langileetakoa eta Lurdes ama sagardotegiko sukaldean.

gustuko duen jendea komeni zaio. Gaizki dago nik esatea, baina Eugeniok sagardoa egiteko oso esku ona duela esango nuke, eta guregana sagardoagatik jende dezente etortzen da. Gu tradizionalak gara, eta ordaintzerakoan ere, gauzak garbi: gutxi jaten duenak, merkeago; gehixeago jaten duenak, garestia".

Batetik eta bestetik, sos kontuetan etxean eskatu gabe moldatzen da Imanol. "Amarekin bizi naiz, eta dena amak ordaintzen du. Gastatu ez dut asko egiten, eta Galarreta eta sagardotegian diru puska bat irabazten dut. Lagun asko sozik gabe dabilta, eta alde hortatik hobe-xeago nago".

Trukean, tarterik bilatu ezinik dabil: "Arratsalderen bat libre badut, mendira joaten naiz, edo lagunekin geratu. Faltan botatzen dudana? Ezin dudala arrisku handirik hartu, erremontista naizelako. Lagunak palan edo pilotan jokatzeko geratzen badira, nik ezin izaten dut, txarra delako erremontista batentzat. Udan lagun arteko futbol partidan ezin naiz aritu. Edo astebeterako planak, hara edo hona joateko. Ezin dut, abuztuan ere entrenatu egiten dugulako. Profesionala naiz, eta zaindu beharra daukat".

ETORKIZUNA

Eugenio osabak 56 ditu, dagoeneko. Jende askok esaten omen dio Imanoli 'zuk hartu beharko duzu sagardotegia'. "Setien utzi beharrak pena ikaragarria emango lidake, baina Magisteritza ikasten ari naiz eta bizitzan ahalik eta ate gehien ireki behar dira. Kanpotik oso

polita ematen baitu besteen jardunak. Ezagutzen dut sagardotegia, nola sufritzen duen Eugeniok, ze lana dagoen, eta zer pentsatua ematen dit. Ez dut baztertzan sagardotegia hartzea, baina ikusiko dugu". Lanbideren bat aukeratzekotan, ze apustu egingo luke? "Egun erremontea, etorkizunean Setien. Erremontea da nire erronka orain. Sagardoa nola egin eta beste, hori ere asko atsegin dut. Martxan dagoen negozioa da osabarena, eta horrek ere asko laguntzen du. Xabier anaia ere hor dago".

Suhiltzaile izateko oposaketak prestatzen ari da Xabier Ansa anaia, eta bien arteko harremana horrela ikusten du: "Lagun bat gehiago da, aholkua eskatzen dioten lehena, amari baino lehena, batez ere apuroa ematen didanean. Xabierrek ez du sagardoa edaten. Ni gehiago inplikitzen naiz sagardogintzan, baina elkarren osagarri garelako esango nuke. Lana egiteko, ez biak nagusi izateko. Bat nagusi, eta bestea langile, ikuspuntu bakarria izatea hobe. Nik komertzial lanean gehiago egin dezakedala uste dut. Xabier serioagoa da, zuzenagoa negozio bat eramateko. Ingeniaritza ere bukatu du, eta oso pertsona konprometitua da".

Urnietak sagardoarekin duen harremanaz zera pentsatzen du: "Urnietan izena Hernani eta Astigarragoarekin batera azaldu beharko lukeela esaten diot osabari, indarra har dezan. Jendeak ez daki Urnietan bost sagardotegi ditugula, eta jakin beharko litzateke. Sagardoa prestigioa ematen duen zerbait da".



Erremontean, unibertsitatean eta txotx garailan txotxero aritzen da Imanol urnietar gaztea.

ERREMONTISTA



Galarretara bertaratzen diren zaleak oso exigenteak dira. Dirua jokatzen dute, eta euren iritzia ozen ematen dute. "Niri 'chiquitin' esaten didate... Zer egin? Onartu. Han daudelako gaude gu kantxan, eta ordaindu edo dirua sortzen duten momentutik, haiek errespetatu besterik ez zaigu geratzen. Gogorra da, igual egun txarra daukazulako, baino eutsi egin behar".

MOTZEAN

Urnietako beste sagardotegi bat: Hurrengo galdera.

Urnietan ez dagoen sagardotegia:

Lizeaga eta Rufino, aurten.

Herriko gustuko txokoa:

Buruntza.

Zer gustatzen zaizu Urnietan?

Tokia egina daukadala, dena eskurara, maitatua sentitzen naiz.


Eta faltan?

Parranda, mugimendu gehixeago.

Etorkizunean Urnietan ikusten al duzu zure burua?

Bai, eta hemen ez bada, ba gertu.

MUSIKA



Afizio bitxia izan zuen gaztetan: bibolin-jotzailea. "Oso gustukoa nuen. Elizan-eta jotzen nuenean, hara bertaratzen zirenak isil-isilik jarraitzen zituzten nire doinuak, baita Gabonetan baserrietan barrena eskean joaten ginenean ere. Solfeoa bost urte ikasi nuen, eta bibolina oso gustuko nuen, gozatu egiten nuen. Baina..., denbora asko eskatzen zuen, eta beste aukera batzuk sortu ziren. Berreskuratu nahi nuke, egunen batean, afizio gisa".

Dantza Kalean ekimenean izango dira Egapeko kideak



Egape dantza taldeko kideak aurreko edizioan.

Egape dantza taldeko zortzi dantzari gaztek "Zapiartearen" koreografia dantzatuko dute larunbat honetan (apirilak 1), Donostiako Alderdi Ede- rrean 17:30ean hasita.

Saioa Dantza Kalean ekimenearen baitan kokatzen da. Deialdi horretan hamalau dantza eskoletako berrehun dantzarik hartuko dute parte.

Onddira irteera Urnietako Denbora-bankuarekin

Datorren igandean, apirilak 2, Urnietako Denbora-bankuak, Donostiako Emakumeen Etxeko Denbora-bankuarekin eta Aiztondo Denbora-bankuarekin batera, Onddi mendira irteera antolatatu du.

Bertan parte hartzeko ez da beharrezkoa Denbora-bankuan apuntatuta egotea, gaian interesa, edo gehiago jakin nahi duen gutzia joan

daiteke. Irteera, goizeko 10:30ean tren geltokian, handik kotxez Besabiraino joateko. Nahi duenarekin etxetik ekarritako janaria bazkaltzen geldituko gara mendian.

Beharrezkoa da aurrez ize- na ematea, batez ere, kotxe- ak antolatzeko. Informazio gehiago izateko edo asistentzia konfirmatzeko:

urnietabank@gmail.com

Argazkilaritza tailerra ostiral honetan

Gaztelekuak aurreko astean sare sozialen inguruko mahai- ingurua antolatuta ostean, ostiral honetarako argazkilaritza tailerra antolatuta du Ion Markel argazkilaria profesionalarekin. Instagram sare sozial ezaguna-

ri buruz arituko dira, zehazki. Hitzaldia gazteen arteko "Instant Iean" lehiaketa sustatzeko baliagarria izango da. Udalak eta Aldundiak sustatuta, 13-17 urte bitarteko gazteei zuzendu- tako ikastaroa izango da.

Annie ikuskizun musikala Salesiar ikastetxean

Bosko Anitz aisialdi taldeak "Annie" ikuskizun musikala aurkeztuko du jendaurrean, asteburu honetan egingo dituen bi saioetan. Arratsaldeko 17:00etan hasiko dira bi saioak Salesiar ikastetxeko antzokian. Zer esanik ez dago Urnietan sortu eta ekoiztu dela ikuskizuna, aisialdi taldeko begirale eta gazte- txoekin. Sarrera doakoa da, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez hobe da alde zurrerik sarreraren erreserba egitea:

boskoanitz@gmail.com



Apirilaren 3tik 9ra Lasarte-Oriako Okendo plazan

Mikel Pagola alkatea Lasarteko Memoria plazan

Gogora memoria, elkarbizitza eta giza eskubideen institutua Euskadiko memoria demokrati- koa jaso eta transmititzeko egi- tekoarekin jaio da, **Eusko Jaurlaritzaren** baitan. Bere eginkizun nagusia "memoria kritikoa gor- de eta transmititzea da, helburu pedagogiko eta dibulgatzaileekin". Egitasmoen artean **Memoriaren Plaza** dute. Hiriburuetan aurkezteaz gain, Tolosan edota Arrasaten egon dira. Erakuske- ta gunea da, indarkeria mota ezberdinen berri ematen dena. Tailerrak ere antolatzen dituzte ere, ikasleei begira. Eta, azke- nik, ekitaldiak eskaintzen dituz- te bertan.

Berri-Buruntza eskualdean Lasarte-Oriakoa izango da le- hen herria eta egitarauan ikus daitekeenez, Urnietako alkate Mikel Pagolak mahai-inguruan parte hartuko du.



Aintzane Ezenarro Gogora institutuko zuzendaria da.

EGITARAUA MEMORIAREN PLAZA

Okendo plaza, Lasarte-Oria
Apirilak 3, astelehena. 18:00.

Erakusketaren irekiera eki- taldia.

Apirilak 4, asteartea. 19:00.

Mahai-ingurua ETako eta

GAleko biktimekin: Josu Elespe, Feli Goikoetxea eta Manoli Urritegi.

Apirilak 6, ostirala. 19:00.

Alkateen mahai-ingurua: La- saterko Jesus Maria Zaballos, Hernaniko Luis Intxauspe eta Urnietako Mikel Pagola.

"SARE SOZIAL EDERRENA KALEA DA"



Xabi Solano eta Nahikari Garcia Gaztelekuan.



Antolatzaileen arabera ehun lagun inguru hurbildu zen solasaldira.

Nahikari Garcia Errealeko jokalaria urnietarra, **Xabi Solano** Esne Beltzako trikitilari eta abeslaria eta **Juan- txo Arakama** Glaukoma taldeko abes- laria Urnietako Gaztelekuan izan ziren joan zen ostiralean sare sozialei buruz- ko solasaldian parte hartzen. Arrakas- ta handiko hitzordua izan zen, Gazte- lekua txiki geratu baitzen.

Urnietako Gaztelekuan eta, oro har, Gipuzkoako gaztelekuetan sare sozia- len inguruko lanketa egiten ari dira. Hala, hiru pertsonaia ospetsu hauek beraien bizipenak kontatu zizkieten urnietarrei. Herriakidea duten Nahika- ri Garciairen Instagrameko argazkiak ikusi zituzten; futbolarekin lotutako- akia denak. "Futboleko partiden oste- an igotzen ditut argazkiak normale- an. Ia guztietan nire taldearekin ager- tzen naiz, futbola talde lana delako eta nire argazkiekin hori erakusten saia- tzen naiz. Nire inguruko jendeari garrantzia handia ematen diot sare sozialean ere", adierazi zuten.

Xabi Solanok gehienbat Instagrama erabiltzen du, kontzertuak iragartzeko

edo kontzertuen argazkiak jartzeko. Juantxok ere Facebooka musikaren inguruko informazioa zabaltzeko era- biltzen du. Hiru sare sozialek kontu handiarekin erabili beharreko tres- nak direla azpimarratu zuten. "Bizitza ideal bat irudikatzen saiatzeko joera izaten du askok, baina saiatu zaitezke aha- lik eta argazki errealean ikotzen. Zuek izan sare sozialean, eta gaur ez eza- zue igo bihar damutuko zareten argaz- kirik", aholkatu zuten.

Teknologiako menpekotasunaz ere mintzatu ziren. "Nahiagoko nuke mugikorra gutxiago erabiliko banu", onar- tu zuten Solanok. Egoera honen aurre- an, Juantxok aspaldiko garaia gogo- rarazi zituen, komunikatzeko mugiko- rrik erabiltzen ez zen une haiek hain zuten: "Sare sozial ederrena kalea da".

Gaur egun kontzertuetan mugiko- rrak erabat airean edukitzen direla kon- tatu zuten, jendeak unea aprobetxa- tu beharrean, gerorako argazkiak edo bideoak egiten dituelako. Hori horre- la izanik, esperimentu bat egin zuten gazteekin. Solanok gitarra eta Araka-

mak mikrofonoa hartuta, inoiz erre- pikatuko ez zen abesti bat jo zuten. Gazteei mugikorrek gordetzeko eta uneaz gozatzeko eskatu zieten, eta halaxe egin zuten. Gomendio gisa sare sozialek tentuz eta neurrian erabiltze- ko esan zuten eta kantuan amaitu zuten hitzaldia.

PARTE HARTZE HANDIA

Ezbairik gabe hitzordu erakargarria izan zen ostiralekoa, baina parte har- tzea espero baino handiagoa izan zen. Gaztelekuko hezitzaileek adierazi dute- nez, 11-18 urte bitarteko ehun lagun inguru bertaratu zen. Balorazio oso posi- tiboak egin dute: "Oso positiboak iruditu zaigu sare sozialen inguruan praktika positiboak hitz egitea eta erreferente diren horiek nola erabiltzen dituzten ikus- tea: gonbidatuetako bakoitzak zein mezu eta irudi transmititu nahi duen sare sozialen bitartez, bizitza perso- naleko argazkien trataera nola egiten duten, zein informazio jartzen duen...". Pozik daude teoriaraz haratago, saio oso praktikoa izan zelako.

Santakruzak apirilaren 28tik maiatzaren 3ra arte

Koadrilen eguna, aurten asteartearekin



Koadrilen eguna aurten maiatzaren 2an izango da, asteartearekin. Jaiak maiatzaren 3an amaituko dira, Santa Krutz egunean.

Apirilaren 28an emango diete aurten hasiera Santa Krutz jaiei. Txikiak arratsaldean eta helduek iluntzean, pregoi bikoitzarekin hasiko dira Andoaingo jai ezagunak. Denera sei jaiegun izango dira, apirilaren 28an hasi eta maiatzaren 3ra arte. Jai batzordea egun hauetan egitarau osoa lotzen ari da, nahiz eta ekitaldi asko noiz izango diren aurreikus daitekeen. Peña Santa Krutz elkartearen danborrada, esaterako, apirilaren 29an izango da jaietako larunbatearekin bat eginez. Hilaren 30ean, berri, Amnistiaren Aldeko Ba-

Maiatzaren 2a asteartea da, lan eguna izatez. Jai Batzordeak Koadrilen eguna ospatzeko egun hori aukeratu du

tzordearen txanda iritsiko da. Maiatzaren 1ean kros herrikoa klasikoa izan ohi da. Maiatzaren 2a asteartea da, lan eguna izatez. Jai batzordeak Koadrilen eguna ospatzeko egun hori aukeratu du. Maiatzaren 3a Santa Krutz eguna da, tradizioz beteriko eguna.

KARTEL LEHIAKETA

Jaiak iragartzeko lehiaketa martxan da. Aurtengo oinarriak:

1. Teknika librea da.
2. Tamaina Din A-4 edo A-5.
3. "Sata Krutz Jaiak 17" esaldia nahitaez agertu behar da.
4. Lanak aurkezteko epea: Apirilak 4, asteartea. 13:30. Egilearen datuak, sobre itxian.
5. Lanak aurkezteko tokia: Ernaitza. Zumea kalea, 9. 20140. Andoain.
6. Bi sari: 150 eta 100 eurokoak. Egile eskubideak jai batzordearen esku geratuko dira.

Aurretik izena eman beharra dago, apirilaren 8a baino lehen

Garagardoa egiteko ikastaroa Gaztetxean

Brewing Masterclass izeneko ikastaroa antolatu dute Andoaingo Gaztetxean, datorren apirilaren 8rako: "Arratsaldeko 15:00tan hasi eta 21:00etan amaituko da. Lehengaietatik hasi eta garagardoa eskuratu arteko prozesu osoa ikusi ahal izango dugu, oinarriko hiru osagai erabiliz; malta, lupulua eta legamia". Ikastaroa aditu batek eskainiko du. Interesa duenak aldeztu aurretik izena eman behar du posta elektronikoz.

andoaingogaztetxea@gmail.com

Matrikula: 15 euro.



Andoaingo Gaztetxean garagardoa egiteko ikastaroa antolatu dute.

Alonso moda diseinatzailea 'Pasarela 948' desfilean



Iruñeko modelook Fanyren arropa sortarekin.

Fany Alonso Andoaingo moda-diseinatzailearen azken jantzi diseinuak Euskal Herriko pasarelatan ikusi ahal izan dira oso denbora laburrean. Joan zen ostiralean 'Pasarela 948' desfilean parte hartu zuen Modesto Lomba, Threones, Eder Aurre eta beste zenbait diseinatzailekin batera. Iruñeko Tres Reyes hotelean egin zen jaialdia, eta Andoaingo la-

gun ugari bertaratu zen, Fanyri animoak eman eta desfilearekin gozatzeko asmotan.

Adituek diotenez, Fany irudimen handiko diseinatzailea da, estilo berezikoa. Azken aldian maiz ari da alfonbra gorria zapaltzen. Azkenekoa aste honetan bertan izan da, Gasteizen antolatu zen Pasarela 'Gasteiz-on' jaialdian.

Euskal Herriko txistulari gazteen lehiaketan

Manex Olazagirre Andoaingo musikari gazteak, hirugarren saria eskuratu zuen Hernanin joan zen asteburuan ospatu zen Euskal Herriko txistulari gazteen lehiaketan. Hernaniko talde batekin jardun zuen, atabala jotzen.



Praktikak egiteko laguntzaile bila dabilta

Mekanizatuan, CNC edota betiko moduan lan egiten duten enpresen bila ari da La Salle Berrozpe ikastetxea, euren ikasleek praktikak bertan egin ditzaten.

Enpresari ez zaio inolako

gasturik sortuko eta ikaslearen aseguru Lanbideren kontu joango da.

Praktikaldia maiatzean hasteko, interesatuek ikastetxearekin harremanetan jarri behar dute.

Enpresa sortzeko doako ikastaroa Andoainean

Beterri-Buruntzako Udalen eskutik, Andoaingo Urigain etxean doako ikastaroa eskainiko dute apirilaren 26an eta 27an. Ikastaroa GERTU Asesores de empresa y abogados S.L.-k emango du eta Lanbideren lankidetzaz izango du.

Ekintzaile zerbitzutik doako ikastaro bat jarriko da martxan apirilaren 26 eta

27an. Ikastaroa Andoainean izango da, Urigain kultur etxean.

Ordutegiak:

- Bi ordutegi daude aukeran:
- Goizez: 09:00-13:00.
- Arratsaldez: 15:00-19:00.

Informazioa, izen-ematea:

- 943 304 221 (Nerea Yurrebaso)
- ekinean@andoain.eus
- Lanbideren bulegoetan

EUSKARA

Korrika noiz iritsiko zain



Euskararen aldeko egiten den ekitaldirik ezagunena izateaz gain, bertan parte hartzen dutenentzat zirrargarria izaten da. Euskal Herri osoan lekukoa eskuz esku igaroko da, euskararen aldeko lasterketan. Ohi bezala, Andoainen eta Urnietan Korrikari harrera beroa egingo diote.

Egun hauetan xehetasun ugari lotzen ari dira antolatzaileak: Trafiko eta bide segurtasuna Udaltzaingoarekin bideratzea, lekukoa eramango duten eragileen kokapena eta ordena erabakitzea, sentsibilizazio lana, etab. Ostegun honetan Andoainen peto banaketa egingo dute, jai giroko kalejiraren bitartez. Herriguneko toki ezberdinetan petoa jasotzera deituko dituzte kilometroa erosi dutenak, eta ondoren denek bat egingo dute Zumea plazako amaierako ekitaldian. Urnietan ere xehetasun guztiak lotzen dabilta, eta dagoeneko ibilbidean zehar lekukoa nor eta non eramango duen erabakita daukate. Korrikaren aldeko giroa aurreko egunetan berotuz joan da Urnietan,

bereziki joan zen martxoaren 17ko ospakizunarekin. Haur antzerkiaren aurretik Korrikako materiala salgai ipini zuten eta, gainera, Egape dantza taldeko hainbat kidek ezustean Korrikaren aurtengo kantarekin jendaurrean koreografia landu eta eskaini zuen. Txalo zaparrada jaso zuten Zubitxo plazan bildu zirenen aldetik. Aiurrik dantza saio hura bideoan grabatu eta ehunka bisitaldi jaso ditu. Korrikaren ezusteko atseginetakoa izan da.

Apirilaren 4ko goizean Korrika Andoaindik eta Urnietatik igaroko da. Denbora gutxira argazkiak eta bideoak ikusgai izango dira www.aiurri.eus guzuz.

BATZUK 20.korrika

2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra
OTXANDIOTIK IRUÑERA

IBILBIDEA ANDOAIN BARRENA, URNIETARAKO BIDEAN

<p>KORRIKA ANDOAINEN APIRILAK 4, ASTEARTEA. 09:59.</p> <p>Aiztondoko bus geltokia Axeri dantza taldea</p> <p>Zumea plazako biribilgunea Aita Larramendi ikastolako langileak</p> <p>Maiza zinemaren pareta Andoaingo Udala</p> <p>Bastero Gazteleku pilota eskola, Leitz KE, Leizaran, Euskalduna MT, Txirindulari eskola</p> <p>Eskilara mekanikoak Euskalduna Andoaindarra futbol taldea</p> <p>Pio Baroja hasiera Ezker abertzalea</p> <p>Kurkutx taberna Aita Larramendi ikastolako batzordea</p> <p>Goikoplaza La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasleak</p> <p>Arantzubiako biribilgunea La Salle Berrozpe ikastetxeko langileak</p> <p>Martin Ugalde Kultur Parkea Parkeko kideak</p> <p>Braher Arrospe enpresa</p>	<p>Sorabillako bidegurutzea Aita Larramendi ikastolako ikasleak</p> <p>Gaztetxea San Esteban auzoko SEGA elkarte</p> <p>Txuribeltz taberna Andoaingo emakumeak</p> <p>Leizaur parkea, bus geltokia Erraldoi eta buruhandiak</p> <p>Dr.Huitziko lehen etxebizitza Ondarreta ikastetxea, Leizaran institutua</p> <p>Agustin Leitza hasiera Urki dantza taldea</p> <p>Baroja-Iturzaeta bidegurutzea Hurria-Sahara</p> <p>Mendi autoeskola Udal langileak</p> <p>Arantzubiako lehen etxebizitza Oroituz Andoainen elkarte</p> <p>Kaletxikiko biribilgunea Berriako langileak</p> <p>Krupp Widia Peña Santa Krutz, Zumeatarra, Agustin Leitza, Ontza, Hogar Extremeño, Andoaindarra</p> <p>Upategi baserria Aiurri-Larramendi Bazkuna</p>
---	--

AIURRI Argazkiak, bideoak egunean bertan

EUSKARA

BATZUK ^{æek} 20. korrika

2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra
OTXANDIOTIK IRUÑERA

IBILBIDEA URNIETAN BARRENA, HERNANIRAKO BIDEAN

KORRIKA URNIETA
APIRILAK 4, ASTEARTEA. 10:38.

Salesiarrak ikastetxea
Salesiar ikastetxea

San Juan-Arantzubi rotonda
Egape dantza taldea

Arantzubi-Idiazabal iskina
Presentacion de Maria ikastetxea

Oztaran bidegurutzea
On Bizi merkatari elkartea

Besabiko bidegurutzea
Esnelat

Denda Berri
Zanpatuz mendi elkartea

San Juan-Geltoki kalea
Urnietako Udala

Xauxar
Egape ikastola

Mandazubiko bus geltokia
Poxta Zahar gazte elkartea

AIURRI  **Aiurri.eus:**
Argazkiak, bideoak egunean bertan

Peto-potea eta kalejira Andoainen

20. korrika
MARTXOAREN 30EAN, PETO-POTEA

18:30 - GOIKOPLAZA
18:45 - BASTERO
19:15 - JUANITA ALKAIN PLAZA
19:45 - ZUBIAURRE
20:15 - EKTALDI NAGUSIA ZUMEA PLAZAN
KORRIKA 20AN ANDOAINEN LEKUKOA
ERAMANGO DUTENEI PETO BANAKETA

APIRILAREN 4AN
9:50 - 10:30 KORRIKA 20 ANDOAINEN
GOAZEN DENOK KORRIKA

Poesia errezitaldia Ernaitzan

Andoaindik apirilaren 4an igaroko da Korrika, eta biharamunean Ernaitza liburu-dendan Korrika Kulturalaren baitan poesia errezitaldia antolatu du-

te. Apirilaren 5ean izango da, asteazkenarekin, iluntzeko 20:00etan hasita. Josu Landa idazleak "Miguel Hernandez kantuz" saioa eskainiko du.



ORAIN KORRIKA

gipuzkoa.eus

Gipuzkoa euskara ere bada. Eta lurralde osoan euskara aukera-berdintasunean bizitzea gu guztion nahia ez ezik, egitekoa ere bada. Askatasun osoz, zein hizkuntza erabili nahi dugun hautatzeko aukera izan dezagun herritar guztiok. Elkarbizitza linguistikoa, finean. Hitz eta jolas. Lan eta bizi. Euskaraz ere bai.

Euskara Gipuzkoa ere badelako. Bat eginda, gehiago garelako.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

KULTURA

Ospakizun distiratsua

Kontzertu bikaina eskainiz eta bere ibilbidean ezinbesteko partaide izan diren eragileak eta musikariak omenduz ospatu zuen Andoaingo Musika Eskolako Bandak bere hogeigarren urteurrena.

Gaur egungo partaideez gain, ibilbide osoan kide izan direnek parte hartze berezia izan zuten emanaldian. Zuzendari eta musikari ohi ugari igo zen oholtzara.



Udal Musika Eskolako Banda auditorioan, Joan zen ostiral gaueko emanaldi berezian. Urteurreneko ekitaldiko argazkiak eta bideoak ikusgai daude www.aiurri.eus webgunean.

Lau zatitan banatu zen kontzertua, **Juan Carlos Etxeberria** ETBko kazetariak aurkezturik, Basteroko auditorioa musika zalez lepo bete zena. Musika emanaldia formala baino gehiago, lagun arteko ospakizuna izan nahi zuela aitortu zuen hasieratik Etxeberriak, eta hala izan zen, egungo bandak ez ezik, bere ibilbidean partaide izan direnek edo nola edo hala kolaboratu izan dutenek protagonismo berezia hartu zuten saioan zehar.

Lau zatitan banatu zen egitaraua, bandaren hogeituroko ibilbidea etapaz etapa azalduz. Eta horretarako, bandak izan dituen lau zuzendariak hartu zuten batuta, Basteroko pantailan argazkiak proiektatzearekin batera.

1997-2007 aroa aipatu zen lehenik, eta **Aitor Gastonen** gidaritzapean *Arraunlariak pasadoblea (Amenabar)* jo zen. **Gorka Mujikaren** eskutik, berriz, *Chicken run (Powell & Gregson-Williams)* abestia entzun zen. Eta azkenik, **Mirari Irurzun** igo zen oholtzara; honekin, bandak *John Williams in concert* pieza interpretatu zuen, entzuleen gozamenerako.

TCHAIKOVSKY INTERPRETATZEKO ERRONKA GAINDITUTA

Kontzertuaren laugarren eta azken parte heldu zen ondoren. Bandaren ibilbidean bere partaide izan diren hainbat musikariek egungo bandarekin bat egin zuten Basteron. Laurogei musikari eta beren instrumentuak kabitu ziren, bai,

Tchaikovskyren '1812 Oubverture solennelle' obra zuzenean eskaintzea izan da bandaren emanaldi bereziko erronkarik handiena

Basteroko eszenatokian. **Nerea Uraldek** diseinatutako irudia daraman zapi zuria jantzi, eta denek beren tokia hartu zuten, musika jotzeko prest.

Juan Carlos Etxeberria aurkezleak azaldu zuenez, egungo zuzendari **Mikel Emezabalen** eskutik bandak proiektua sendotu eta kalitatearen ikuspegitik pauso bat aurrera egin du. Horren adierazgarri izan daiteke bere interpretazio-

ak zailtasun tekniko izugarria daukan **Tchaikovsky** egilearen *1812 Oubverture solennelle* obra. Erronka handitzat jo zuten bandako kideek obra hori jotzea Basteron; ikasturte osoa igaro dute bere prestaketan, eta egia esanda, bikain gaingitu zuten azterketa.

AITORTZA UGARI

Ospakizuneko kontzertuaren amaiera aldera, aitormenen ordua iritsi zen.

Lehenbiziko eta behin, bandaren hogeituro urtetan hasiera-hasieratik eta hutsik egin gabe musika jotzen jarraitzen duten **Eider Jalon**, **Maria Carrera**, **Mari Cayetano** eta **Aingeru Zabala** partaideei esker oneko omenaldi txikia eskaini zitzaizen,

Andoaingo Udalaren aro ezberdinetan kultura arloko arduradunak izan diren bost zinegotzietatik aitortza jaso zuten

eta txalo zaparrada jaso zuten entzuleen partetik.

Segidan, **Ana Carrere** Andoaingo alkateak hitza hartu zuen. Honek bandari eskerrak eman zizkion Andoaingo Udal korporazioaren eta herriaren izenean, "kanpoko zein bertako musika gerturatzegatik eta herriari erakustegatik. Ezinbestekoak izan zarete Andoaingo musika kultura zabaltzeko Andoaingen".

Carrerek, Andoaingo Udalaren aro ezberdinetan kultura arloko arduradunak izan diren bost zinegotzi nabarmendu nahi izan zituen, bandaren ibilbidearen parte ere izan direlako. **Garbiñe Egibar**, **Toñy Landa**, **Ainhoa Elizondo**, **Aitziber Ugartemendia** eta **Esti Mujika** zinegotziak, eta aipamena jasotzera Elizondo ez beste laurak igo ziren oholtzara.

Lau emakume horiek bandako lau zuzendarietako oroigarriak eman zizkieten. Ana Carrere alkateak Basteron bildutako guztien desioari hitza jarri zion, alegia, bandak ospatu ditzala beste hogeituro urte gehiago.

Joxe Mari Oiarzabalen *Andoaingo ereserkia* doinuarekin eman zioten amaiera emanaldiari.



Aitor Gaston, Gorka Mujika, Mirari Irurzun eta Mikel Emezabal Bandak izan dituen lau zuzendariak.

KULTURA

Andoaingo Bandaren kronista

1997an birsortu zen Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandaren historiari buruzko hitzaldia eman zuen Xabier Huitzik joan den astezkenean Basteron. Bandak herrian duen garrantzia nabarmen-

du zuen: "Banda ez da zuzendari edo musika jakin bat. Banda herri da eta herriarekin bizi da". Hitzaldiarekin batera Mugaz bandaren emanaldiaz gozatzeko aukera eduki zuten ikusleek.

Xabier Huitzik Andoainean iraganean izan zen Musika Bandaren kronika argitaratu zuen **Leyçaur 12** aldizkarian, 2012an (*Ez abandonatu instrumenturik edozein taberna-zulotan*). Orduko hartan, XIX. mendearen erdi aldera abian jarri eta 1970eko hamarkadan desagertu zen musika bandaren historia bildu zuen. Hari muturra utzi zuen lotzeko orduan, 1997an birsortu zen bandaren historia kontatzea, alegia. Hain zuzen ere, idazteko dagoen historia hurbilago horri heldu zion Huitzik joan den astezkenean Basteron eskaini zuen hitzaldian.

LEHENBIZIKO PAUSOAK

Hogei urtetan (1997-2017) Andoaingo Bandak egindako ibilbidea deskribatu zuen, makina bat datu eta xehetasun modu atseginean kontatuz: "**Garbiñe Egibar** zinegotziak ahalegin handia egin zuen banda osatzeko, eta giro ona topatu zuen. **Mikel Mate** zen orduan musika eskolako zuzendaria eta banda zalea; **Aitor Gaston** irakaslea ere ez zebilen urrun. Horrela, hainbati gonbidapena luzatu zitzaizen bandako kide izateko; besteak beste, iraganeko bandako kide izan ziren **Luxio Aranburu** eta beste batzuei, inguruko herrietako bandetan edo txarangetan jotzen ari zirenei, musika eskolako ikasleei... Baziren oraindik ikasle txikiak zirenak, eta horiei bonboak gurpilekin prestatu behar izan zitzaizkien kalean zehar ibiltzeko. Kontua da denen artean osatu egin zela banda, eta 1997ko ekainaren 29an egin zela lehen kontzertua, San Juan jaien barruan".

Orduan jo zen errepertorioa gogoratu



Xabier Huitzi Andoaingo Bandaren eta Udal Musika Eskolako Bandaren historiaren biltzailea.

zuen Huitzik. Besteak beste, Djavanen *Flor de lis*, *Donostia zaharra*, Sorozabalaren *Deba martxa*, *Moments of Morricone*... Errepertorioak zerbait adieraz-

ten digula zehaztu zuen hizlariak: "Banda klasikoetatik aldendu nahia ikusten da."

Huitzik aipatu zuen Andoaingo Ban-



Mugaz taldekoek pieza ezberdinak eskaini zituzten joan den astezkeneko hitzaldian.

dak hasieratik eduki duela argi zertarako jaioa zen: "zaletasuna piztu eta kultura musikala hedatu. Xabier Amurizak esaten duen bezala, musika ikusiz gozatzeko da; musika zuzenekoa dela ederrena, alegia". Bandak ehundik gora emanaldi egin ditu hogei urte horietan. Andoaindik beste herrietarako irteerak maiz egin izan dituela zehaztu zuen, zenbat herri aipatuz: Zumarraga, Asteasu, Lesaka, Zumaia, Usurbil...

Bandak bere ibilbidean izan dituen erronka handienak ere gogoan hartu ziren: "Bastero eraikuntza 2003an inauguratu zenekoa izan zen lehena. Hurrengo, **Pepe Andoaini** eskainitako omenaldia. Eta urtetan aurrerago, ezin dugu ahaztu **Andoainean egina eta entzuna** diskoak 2015ean bandari eskatu zion ahalegina".

Aparteko emanaldi gehiago aipatzen hasita, **Oskorri** taldearekin eta **Pirritx**, **Porrotx** eta **Marimotots** pailasoekin batera egindakoak gogoangarritzat hartu zituen.

20 URTEZ, EMOZIO ANITZ

"Hunkigarria da publikoari eskaintzen zaion kontzertu bakoitza, emoziotik hitz egiten duelako musikak. Baina era askotako emozioez hitz egin genezake. Musikariok bandako barrunbeetan bizi izan ditugunak. Hogei urte hauetan zehar zenbait kide ama edo aita bihurtu dira, unibertsitateko karrera amaitu dute, batzuen eta besteen urtebetetzeak ospatu ditugu... Emozioen artean, beharbada berezi-bereziena, zure ondoan musika jotzen urtetan aritu ostean, halako batean hil denak eragiten dizu".

AITORTZA EZBERDINAK URTEURRENEKO EMANALDI BEREZIAN



Bandaren hogeitazko urteetan, hasiera-hasieratik eta hutsik egin gabe, Udal Musika Eskolako Bandako kide dira Aingeru Zabala, Eider Jalon, Maria Carrera eta Mari Cayetano.



Aro ezberdinetan Kulturako arduradun izan diren bost zinegotzi nabarmendu nahi izan zituzten Udalak. Hots, Garbiñe Egibar, Toñy Landa, Ainhoa Elizondo, Aitziber Ugartemendia eta Esti Mujika.

LITERATURA

Kontatu gabeak kontatu nahian

Idazteko grina betidanik eduki duen idazlea da Rolando Verde, maitasunak orain 24 urte Andoainera ekarri zuen kubatarra. Poesia-liburua kaleratu berri du, eta ostiral honetan aurkeztuko du.

AURKEZPENA: MARTXOAK 31, OSTIRALA. ERNAITZA. 19:00.

- “Cosas que no te dije” prosa poetikoa. 137 orrialdeko liburua.
- Salgai: 10 euro. Ernaitza eta Delgado liburu-dendak.

Izenburutik hasita, irakurleari mezuren bat bidali nahi diozula dirudi.

Rolando Verde: Halaxe da. Inguruko jendearekin kalean edota afarietan, edukitzen ditudan berrikeretan nire pentsamendutik zerbaite entzuten dute. Baina ez dena. Une horietan kontatu ez ditudan gauza asko jasotzen saiatu naiz liburuan. Baten batek aitortu dit libururi esker eduki duela nire irudimenaren eta sentiberatasunaren berri.

Zenbat dago zuretik liburuan?

R.V.: Nire buruarekin zintzoa izaten saiatu naiz. Bizitzako kontu txikiez, emakumez, adiskidetasunaz, sufrimenduz, maitasunaz, politikoez..., mintzatzerakoan zintzoa bazara, zintzoa zara hurkoarekin. Irakurri duen beste lagun batek esan didanez, bi pertsona sumatu ditu liburuan: diktatzen duena bata, eta idazten duena bestea. Hortaz, baliteke irakurraldi adina interpretazio egin ahal izatea.

Liburuak azalean prosa poetikoa dela oharrazten du. Poesia eta prosaren generoen konbinaketaz ari al zara?

R.V.: Poesia beste modu batera egiteko aukera da. Konturatuta nago oraindik ere indarrean dagoela poesiaren ikuspegi zaharkitua; Espainiako klasikoen garaietatik dator poesia ulertzeko modu zurrun hori, non zortzi, hamar edo ez dakit zenbat silabako esaldiek agintzen duten. Jose Marti filosofo, politikoa eta idazle kubatarra hautsi zuen poesia egiteko estilo hori, eta erabateko eragina izan zuen Vargas Llosa, Garcia Marquez eta makina bat idazlerengan. Batez ere Martiren gogoetarako batek eragin izan dit zirrara: “Guztia dago idatzita klasikoetatik hasita, baina maitasunez idazten den guztia, beti izango da berria”.

Liburuan zehar, itxura batean prosaz idatzitako kontakizun laburrak sartu dituzu...

R.V.: Musika darie kontakizun horiei.



Rolando Verde kubatar-andoaindarrak ostiral honetan aurkeztuko duen liburua eskuan duela.

Poesia izatez musika denez, saiatu naiz hitzek soinua eraman dezaten, hitzek entzumenean kanta dezaten. Hitz bakoitzak bere sonoritatea dauka, eta azken batean, kontakizun bakoitza hitz mordoek osatzen dute, eta denen artean eskainitako sonoritate bereziko kontzertua entzun daiteke.

Ironia darabilzu maiz, baina behin baino gehiagotan irakurri behar dira testuak, esan nahi duzuna harrapatzeko...

R.V.: Bigarren zentzu batekin idatzi dut, eta egia da bigarren irakurraldi baten premia dutela testu batzuek. Izan ere, ezin diot uko egin Kubako nire jatorriari, eta ia nahi-gabe irteten zait hangoa den umorea. Kubatar batek segituan ulertzen duena.

Emakumearekiko miresmena askotan adierazten da zure prosa poetikoan...

R.V.: Emakumea ez dagoen tokian, akabo bizitza! Egin du gizakiarenak! Emakumea da bizia erditzen duena. Historian zehar gizonezkoa gerrazalea, morkortia, bankeroa, politikoa, dominatzaile...

lea..., izan da. Gainera, emakumeak hain ederrak dira ezen kapaz diren kontinente oso bat seduzitu edo suntsitzeko, Troyako Elenak erakutsi zigun bezala.

Liburuan etengabeak dira zinemari, musikari eta literaturari buruzko erreferentziak...

R.V.: Asko irakurri, entzun eta ikusitakoa naiz, eta nahi gabe ere irteten zaizkit honi eta hari buruzko aipuak. Zine zale porrokatua naiz, txoratzen nau zine mutiak. Musikari dagokionez, talde ugarietan gitarra jo nuen gaztetan unibertsitateko ikasle izan nintzenean; besteak beste, Pancho Cespedes ospetsuarekin ibili nintzen. Eta literaturaren gainean, zer esan? Klasikoak irakurritu dauzkat, eta Amerikako autoreak ez ezik Ingalaterra, Frantzia eta Errusiakoak ere nahiko ezagunak egiten zaizkit. Kubako etxean 4.000 aleko liburutegi pertsonala osatzen iritsi nintzen.

Zenbat alditan entzun behar izan duzu ea zertan zabilzan poesia idazten?

R.V.: Galdera hori baino, jendeak esaten

didana da ez duela poesia irakurtzen eta ez duela ulertzen. Egia esanda, konplikatua samarra dago poesia idaztea, baina badirudi are zailagoa dagoela irakurtzea. Gaur egun, jendeak -30 urtetik beherako gazteek batez ere-, watsapez bakoarik idazten du, eta kontu txepelak gehienetan.

Aiurriko irakurlea gonbidatuko nuke liburutegira hurbildu, liburua eskuan hartu eta begiratu bat eman diezaion, patxadaz. Erakargarria egiten bazaio lehenbiziko orrialdetik, eros dezala.

Jarraitzen al duzu idazten?

R.V.: Egunotan askotan galdetu didate “behin liburua kaleratuta oporrak hartuko zenituen, ezta?”. Baina liburu berri bat ateratzeko moduan nago oraintxe, egunero-egunero idazten baitut. Boligrafoa eta kuadernotxoa gainean eramaten ditut beti, eta edozein egoeratan datozkidan ideiak paperera eramateko ohitura daukat.

Ondoren, patxadaz hartu, eta garatu edota zakarretara botatzen dut idatzitako guztia.

Zeuk egindako edizioa da liburua. Zer dela eta?

R.V.: Argitaletxe ezberdinetara joan nintzen idatzitak besapean nituela. Baina jaso nituen erantzunak ikusita, neure kabuz argitaratzea erabaki nuen, horrek dakarren galera ekonomiko guztia-rekin. Edonorentzat eskura dagoen salneurria jarri diot (10 euro), nahiz eta jakin galtzen irtengo naizela.

Diseinuaren arloan, Irati Abrego eta Unai Huizi herriko gazteek lagundu didate, eta azalean agertzen den marrazkia Jose Mari Espinena da. Hitzaurrea, berriz, Lander Laborde poetak idatzi du. Azken urteetan bidean ezagutu ahal izan ditudan lauzpabost poetetako bat da. Elkarrekin poesia emanaldiak egin izan ditugu Tolosan, Donostian, Errenterian...



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



KIROL ALBISTEAK

Euskalduna Mendigoizale Taldeko eragileetakoa zendu da

Gugan bego, Alejandro

Adarrako mendi gainean Urteberri egunean salda banatzen zuen gizona hil da. **Alejandro Gonzalez** andoaindarra eta bere emaztea **Ixabel Santa Cruz** urteroko zeregin horregatik dira ezagun, batik bat Donostialdeko eta Beterri-Buruntzako mendizale askorentzat. Andoaindar askorentzat, ordea, Euskalduna Mendigoizale Taldeko eragileetakoa zen eta, bereziki, belaualdi ezberdinetan mendizale-tasuna sustatzeko aparteko ahaleginak egin zituen pertsona.

Andoaingo haurren artean mendizale-tasuna sustatzeko ekintzaile nekaezina izan zen, bere emazte Ixabel Santa Cruzekin batera.

Iazko maiatzean, biek Andoaingo Kirol asteko merezimenduaren saria jaso zuten. Egingdako lanagatik aitortza jasota joan da, beraz, Alejandro.

Gaixotasun larri batek eraginda hil zen, joan zen larunbatean. Dagoeneko aurtengo urtarrrilaren 1ean askok haren falta samatu zuten Adarran.



Alejandro Gonzalez eta Ixabel Santa Cruz Euskaldunako egoitzan.

AZKEN ARNASA EMAN NAHI NUKE, ADARRA MENDIARI BEGIRA
Postontzia: Euskalduna M.T.

"Alejandro Gonzalez, Euskalduna mendi taldeko kidea, gaur goizaldean hil da. Iazko urtean Kirol Merezimendu Saria jaso zuen, bere emazte Ixabel Santa Cruzekin batera, urteetako lana eskertuz.

Urte berriari hasiera emanez, salda goxo bat eskeini izan digu Adarra mendi tontorrean, aur-

ten berak nahi baina gorputzak ezetz esan zion eta ez zen bertaratu...

Urtarrilean izan ginen berarekin, oso animatuta eta erreku-peratzen ari zela esan zigun, baina gaixotasunak gain hartu dio. Besarkada bero bana bidaltzen diogu Ixabel bere emazteari, bere seme-errainei, bilobei eta gainerako sendiei eta zuri Alejandro, mendi tontor batean elkartuko gara!".

Larunbatean Indurain sarian eta igandean Errioxako itzulian

Bi urnietar profesional mailako tropelean

Ez da horrelakorik maiz gertatzen, are gutxiago garaiotan. Txirrindulari profesional mailako bi probatan bi urnietar arituko dira asteburu honetan

jokatuko diren Indurain sarian eta Errioxako itzulian. Mikel Alonso Euskadikoa eta Mikel Iturria Muriasekoa dira bi txirrindulari horiek. Alonso 23

urte azpiko selekzioarekin arituko da bi lasterketatan. Biak ere sasoiko dabilta. Urnietaren tamainako herriarentzat oso albiste aipagarria da.

LEHIAKETA EZBERDINAK

FUTBOLA, ERREGIONAL MAILA

Asteburuko emaitzak:	
Urnieta 1-0 Orioko	
Mariño 2-1 Euskalduna	
Datorren asteburuan:	
Urnieta-Deusto. Lar, 17:15.	
Euskalduna-Behobia. Lar, 17:30.	
Saillkapena:	
1. Añorga	60
2. Allerru	54
6. Euskalduna	37
10. Urnieta	29

ESKUBALOIA, SENIOR MUTILAK:

Asteburuko emaitzak:	
Leizaran 27-25 Ormaiztegi	
Urola 28-24 Urnieta	
Asteburuko partidak:	
Leizaran-Urnieta. Ig, 11:30.	
Saillkapena:	
1. Ordizia	36
2. Urnieta	28
3. Ereintza	28
4. Leizaran	22
5. Egja	21

SASKIBALOIA, GANBARA

Asteburuko emaitzak:	
Ganbara SenM 72-61 Bosteko	
Ganbara JubM 44-88 Bergara	
ZAST Orio 55-27 Ganbara KadM	
Partidak, larunbatean:	
09:00 Andoain. Ganbara KadM	
14:00 Tolosa. Take-Ganbara SenM	
Saillkapena, senior maila:	
1. Azkune	39
2. Zarautz ZAST	38
10. Ganbara	30

Proba epikoa Afrika aldean Mujika eta Irazurentzat



Joxemi Mujika eta Gorka Irazu andoaindarrak.

Gorka Irazu eta Joxemi Mujika andoaindarrek Afrikako Cape Epic proba entzutetsuan parte hartu dute. Mendiko bizikletarekin Hego Afrikan egiten den zortzi eguneko proba da **Cap Epic** saria, eta abenturaz beterikoa izaten da, zortzi egunetan luzatzen dena. Bikoteka lehiatzen da. Mendiko bizikleten munduan Frantziako Tourraren alderatzen da.

Gutzira 691 kilometro egin behar dira, eta 17.000 metroko desnibela gainditu behar izaten da.

Aurtengo edizioan 1.200 txirrindulari profesional eta afizionatu irten ziren Cabo Hiritik joan den igandean, hilaren 19an, eta zortzi egun gogorren ostean, Irazu eta Mujika 200 lehenbizikoen artean geratu dira saillapen orokorrean, eta 49. beren mailan.

Loitegi bikain GRAVNIIn

LAPURDI 28- 40 GIPUZKOA
Loitegi-Landa

Aurreko partida kaskarra azkar batean ahaztu zuen urnietarrak, afizionatu mailan

dagoenetik partida onenetariko eginez. Asteburuan Iruan Arabako bikotea gainditzuten badute, zuzenean finalurrekoetara sailkatuko dira.

Jon Ugalde andoaindarra bigarren Talaia Bidean



DONOSTIA-HONDARRIBIA

Eguna: 2017.03.26

Ibilbidea: 30,8 kilometro.

Helmugaratuak: 435.

1	2:19:05	Iker Oliveri	39	2:44:15	Jorge Morales
2	2:22:18	Jon Ugalde	99	2:56:49	Josu Mujika
3	2:22:27	Aritz Kortabarria	330	3:38:30	Alfredo Rodríguez

4 2:25:09 Eneko Trinche

5 2:28:15 Javier Perez

Andoaindarrak:

10 2:34:27 Ivan Piñon

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeaba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu. publicitate@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan), **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

MARTXOAREN 30ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

- "El viajante"
Lar, 1. 19:30-22:00.
Astl, 3. 19:30-22:00.
- "Memoriaren ganbara" dokumentala. Tropa faxistek El-goibar hartu zuteneko antzezpena. "Oroituz, Andoainen" elkarteak antolatuta. 19:00 Bastero. Apirilak 4, asteartea.

Urnietan, Sarobe

- "Cigüeñas"
Igandea, 2: 16:00, 18:00.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- "Jainko basatia", euskaraz. 21:30 Auditorioa. 12 euro. Martxoak 31, ostirala.

Farmaziak

Andoain

- Diaz. Kale Nagusia, 19. Gauez: Etxebeste.

Urnietan

- Aldabe. Perkaiztegi 8. Antziola, Hernani. Gauez: Etxebeste. Apirilak 1 eta 2.

Batzarra

Andoain

- 19:00 Udaletxea. Martxoak 30, osteguna.

Korrika

Andoain

- Peto-potea kalejira: 18:30 Goikoplaza. 18:45 Bastero. 19:15 Juanita Alkain. 19:45 Zubiaurre. 20:15 Zumea plaza. Martxoak 30, osteguna.

Hernani

- Erradikalak gara ikuskizuna: Beatriz Egizabal eta Ane Labaka. 20:00 Biteri. 7 euro. Martxoak 30, osteguna.

Andoain, Urnietan

- Korrika 20: Goizez igaroko da. Apirilak 4, asteartea.

Andoain

- Korrika kulturala: Miguel Hernandezen poesia musikatuta, euskaraz. Josu Landa idazlearen eskutik. 20:00 Ernaitza. Apirilak 5, asteazkena.

Iruñea

- Korrika amaierarako festa: Hernanialdetik autobusa ir-tengo da. Urnietatik pasako da, joatean eta itzultzean. Irteera: 09:00, Matxo. Itzulera: 20:00. Prezioa: 12 euro. Salgai: Xauxar. Apirilak 9, igandea.

Musika

Andoain

- Ekiza bakarlarria. 18:30 Gaztetxea. Apirilak 2, igandea.

Andoain

- Ruper Ordorika. 21:30 Basero. Apirilak 7, ostirala.

Ikastaroak

Urnietan, Sarobe

- Izen-ematea zabalik apirilaren 7ra arte. Plaza mugatuak. 943 00 80 42. sarobe@urnieta.eus. sarobe.info | urnieta.eus.
- Dantza familian, Arantxa Iglesias: Musika, sormena, dantza eta jolasa txiki eta handientzat. 3 urtetik gorako guztientzat. 17:00-18:00. Debalde. Apirilak 10, 11, 12.
- Oinak airean, Ibai Egia: Dantza eta akrobaziak airean, igo, jaitsi, kulunkatu... 14 urtetik aurrera. 10:00-12:00. Debalde. Apirilak 18, 19, 20.


Aisialdia

Andoain, Ludoteka

- Larunbatean euskaraz: Txuri Urdirera irteera. Izen-ematea: 943 592 181. 10:00-13:00. Apirilak 1, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Zorionak **Naia!** Apirilaren 3an 9 urte! Izugarri maite zaitugu Axel, aita eta ama. Ondo pasa!

URNIETA

ZORIONAK



Zorionak **Ainar** eta **David!** Primeran pasa eta zoriontasuna besterik ez dizuegu opa! Gora ezkonberriak!!

ANDOAIN


ZORIONAK



Zorionak **Eneko!** Handitzen handitzen, 5 muxu goxo zuzetzat!

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak **Ane** eta **Elsa,** martxoaren 30ean eta apirilaren 8an 8 eta 3 urte. Muxu handi bat, aita eta ama.

URNIETA

ZORIONAK



Apirilaren 12an **Axel** eta **Amanek** 4 urte beteko dituzte. Zorionak eta ondo ondo pasa! Txokolatezko muxuak!

ANDOAIN-ADUNA

Miguel Hernandez
KANTUZ
Josu Landa Ernaitza liburudendan
apirilak 5 20:00etan

BAT ZU
MPK

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Aiurri astekaria goitik behera berritzera goaz

OHARRA

Aiurriko erredakzio batzordeak bere irakurleei eta bezeroei honako oharra helarazi nahi die: Aurreko asteetan diseinu aldaketa gauzatu genuela iragartzen aritu ginen. Ezinezkoa izan zaigu, ordea, lan taldearen baitan sortu diren ezustekak direla medio. Diseinatzaile eta maketatzaile lanetan dabilen Maddi Trutxuelo lan-kidea baja hartuta dago, eta bera osatu arte betiko Aiurri astekaria egiteari eutsiko diogu. Beranduago bada ere, aurreko asteetan landutako diseinu berriak argia ikusiko du etorkizunean. Barka eragozpenak.

JOXINIXIO
PIZKUNDE
ZAPUZTUA

ANDOINGO
BERTSOLARITZA
XX. MENDEAN

Liburudendetan
eta Aiurri salgai